

MINTZALAGUNA EGITASMOAN PARTE HARTZEKO IZEN EMATEA ZABALIK URRIAREN 18RA ARTE: MINTZA POZA PRAKTIKATU

Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko izen ematea zabalik da urriaren 18ra arte. Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Bagera elkarteak lortutako akordioari esker, 25 euro ordaindu behar dute soilik praktika behar duten parte hartzaileek.

Egitasmo hau euskaraz aritzeko ohitura, bidelagunak eta trebetasuna eta erraztasuna lortu nahi duten euskara ikasleei, bidelariei, zuzenduta dago. Berebiziko garrantzia du egitasmoak ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko.

Izen ematea zabalik urriaren 18ra arte

Mintzalagun egitasmoan izena emateko epea zabalik da eta urriaren 18an amaituko da, beraz, euskara praktikatu nahi dutenek eta praktika horretan lagundu nahi duten euskaldunek izena emateko aukera dute. Izena emateko bide nagusia Bagera elkartearen www.bagera.eus webgunea izango da. Horrez gain, Bagera elkartearen (Hernani kaleko 15. zenbakian) ere egin daiteke. Informazio gehiago 943005074 telefono zenbakian edo mintzalaguna@bagera.eus helbidean eskura daiteke.

Jon Insausti Kulturako eta Euskarako zinegotziak euskara praktikatu nahi duten donostiarrak egitasmoan parte hartzera animatu ditu. *“Euskaraz gehiago hitz egin nahi baduzu, edo euskaraz hitz egiteko gaitasuna landu nahi baduzu, hau da zure aukera. Mintzapraktika hiruzpalau laguneko taldeetan elkartuta egiten da eta parte hartzeko bi baldintza bete behar dira: euskaraz komunikatzeko gai izatea (B.1 mailatik gora) eta astean ordubetez elkartzeko prest egotea”*. Udaleko Euskara Zerbitzuak Bagera elkarteari emandako diru laguntzari esker, ikasturte osorako kuota eskuragarria dela oso gogoratu du Insaustik.

Prentsa Oharra

MintzaPoza oinarri

Ikasturte berri hau bereziki bizi, garrantzitsu, gogotsu dator. Azken bi urteetan ezinezkoa izan da mintzalaguna ekimena bere horretan, ohiko eran burutzea, baina hartutako konpromisoari eutsi zaio. Ekimena aurrera eramaten duen Bagera elkarteko ordezkariaren esanetan, *“mintzalagunok moldatu gara egoerara, ondo moldatu ere!! Baina, noski, betikora itzultzeko gogoz gara: taldekideekin berriz elkartzeko eta MintzaPoza elkarrekin praktikatzeko. Horixe baita, finean, gure egitasmoen oinarria: MintzaPoza”*.

MintzaPoza hitza erabili da aurten ekimenak sortzen duen sentipena adierazteko. *“Mintzapoz sortzen digu astero elkartzek, euskaraz lasai eta eroso aritzeko aukera izateak akatsak egiteko beldur gabe edo euskara praktikatu nahi dugunok astero elkartzeko prest dagoen bidelagun bat izateak”*.

Bidelagunak ere, euskara praktikatu nahi dutenekin astero elkartzen diren boluntarioak, pozez biltzen dira astean behin euskaraz ordubetez hitz egiteko Laguntzaile edo bidelagun horiek adierazi dutenez *“egitasmoan sortzen den giroak ematen digu MintzaPoza, dakiguna partekatzeak, euskararen alde gure alea jartzen dugula sentitzeak. Hori guztia da MintzaPoza; gure egitasmoen txispa eta oinarria”*.

Covid 19aren pandemiak irauten duen bitartean, indarrean dauden segurtasun neurriak bete beharko dira.

Gurasolagunak: Mintzalaguna eskolan!

Ikastetxeekin “Gurasolaguna” Mintzalagunaren aldaera eskainiko da Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzari esker. Gurasolaguna aldaeran ikastetxe bereko gurasoekin osatuko dira mintza taldeak. Bereziki, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehen zikloko gurasoei eskainitako aldaera da, izan ere, bereziki adin horretako haurren gurasoek egiten duten ahaleginak berebiziko garrantzia du familiaren hizkuntza ohituretan.

Prensa Oharra

Laguntzaileak behar dira

Ikasturte honetan ere euskaraz hitz egiteko gaitasuna landu nahi dutenei laguntzeko deia egin die Bagerak. Nahikoa da astean ordubete eskaintzea. Ordubete horrekin ikasleek euskararen erabileran aurrera egiten dute nabarmen.

400 lagun Donostian, 7000 lagunetik gora Euskal Herrian

Mintzalaguna egitasmoa 1993an sortu zuen Bagera elkarteak. Azken urteotan, Donostian, 400 bat lagun aritzen dira urtero euskaraz berriketan asteroko hitzorduetan Donostiako kaleetan. Donostian ez ezik, Euskal Herriko 120 herri eta hirietan ere zabaldu da egitasmoa, azken ikasturtean esaterako 7.000 mintzalagun aritu dira Euskal Herri osoko 22 herrietan. Horiek guztiek, une batean, jauzi egin dute erabileran: etxetik taldeko girora lehendabizi eta, taldeko konplizitatean, kaleko erabilerara gero.



Kanpainarako sortutako bideoak ikus daitezke ondorengo loturatan klikatuta:

- o https://www.youtube.com/watch?v=Pwf_TleNvRI
- o <https://www.youtube.com/watch?v=0IS6KaDCIzI>

**ABIERTO EL PLAZO DE INSCRIPCIÓN PARA
PARTICIPAR EN EL PROYECTO MINTZALAGUNA
HASTA EL 18 DE OCTUBRE: PRACTICA LA MINTZA
POZA**

La inscripción para participar en el proyecto Mintzalaguna está abierta hasta el 18 de octubre. Gracias al acuerdo alcanzado entre el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián y la asociación Bagera, los participantes que necesiten práctica solo deben pagar 25 euros.

Este proyecto está dirigido a estudiantes de euskera que quieran adquirir el hábito, la habilidad y la facilidad para expresarse en euskera. El proyecto es de vital importancia para dar el salto del conocimiento al uso.

Inscripción abierta hasta el 18 de octubre

El plazo para inscribirse en el proyecto Mintzalagun está abierto y finalizará el 18 de octubre, por lo que los interesados en practicar euskera y los euskaldunes que quieran colaborar en esta práctica pueden apuntarse. La principal vía de inscripción será la página web de Bagera www.bagera.eus. También se puede realizar en la asociación Bagera (calle Hernani, 15). Más información en el teléfono 943005074 o en mintzalaguna@bagera.eus.

Jon Insausti, concejal de Cultura y Euskera, anima a los donostiarras que quieran practicar euskera a participar en el proyecto. *"Si quieres hablar más en euskera, o si quieres trabajar la capacidad de hablar en euskera, esta es tu oportunidad. La conversación se realiza en grupos de tres o cuatro personas y la participación requiere dos requisitos: ser capaz de comunicarse en euskera (a partir del nivel B.1) y estar dispuesto a reunirse durante una hora a la semana"*. Insausti recuerda que gracias a la subvención concedida por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento a Bagera, la cuota para todo el curso es muy asequible.

Prensa Oharra

MintzaPoza como base

Este nuevo curso llega especialmente intenso, importante, con ganas. En los dos últimos años no ha sido posible llevar a cabo la iniciativa Mintzalaguna de la forma habitual, pero se ha mantenido el compromiso adquirido. El representante de Bagera, asociación que lleva a cabo la iniciativa, asegura que *"los mintzalagunak nos hemos adaptado a la situación, ¡y muy bien! Pero, claro, tenemos ganas de volver a lo de siempre: reencontrarnos con los compañeros y practicar juntos MintzaPoza. Esta es, en definitiva, la base de nuestros proyectos: MintzaPoza"*.

Este año se ha utilizado la palabra MintzaPoza para expresar la sensación que genera la iniciativa. *"Nos crea Mintzapoza reunirnos cada semana, tener la oportunidad de expresarnos en euskera tranquila y cómodamente sin miedo a cometer errores o tener un compañero de viaje dispuesto a juntarse semanalmente con aquellos que queremos practicar euskera"*.

Los *bidelagunak*, voluntarios que se reúnen semanalmente con quienes quieren practicar euskera, también se reúnen con alegría para hablar una hora a la semana en euskera. Estos colaboradores o compañeros de viaje señalan que *"el ambiente que se crea en el proyecto es el que nos da MintzaPoza, compartir lo que sabemos, sentir que ponemos nuestro grano de arena a favor del euskera. Todo eso es MintzaPoza; la chispa y base de nuestros proyectos"*.

Durante la pandemia de la Covid-19 se deberán cumplir las medidas de seguridad vigentes.

Gurasolagunak: ¡Mintzalagunak en el colegio!

En los centros escolares se ofrecerá la variante de Mintzalaguna "Gurasolaguna" gracias a la colaboración del Servicio Municipal de Euskera. En la variante Gurasolaguna se completarán los grupos de conversación con padres y madres del mismo centro escolar, una variante dedicada especialmente a padres y madres de primer ciclo de educación infantil y primaria, ya que el esfuerzo que realizan

Prensa Oharra

especialmente los padres y madres de niños y niñas de esta edad juega un papel fundamental en los hábitos lingüísticos de la familia.

Se necesitan colaboradores

Bagera anima a aquellos que quieran trabajar su capacidad de hablar en euskera también este curso, bastando con dedicar una hora a la semana. Con esa hora los alumnos avanzan notablemente en el uso del euskera.

400 personas en Donostia, más de 7000 en Euskal Herria

El proyecto Mintzalaguna fue creado en 1993 por la asociación Bagera. En los últimos años, alrededor de 400 personas charlan cada año en euskera en las calles de San Sebastián. Además de en Donostia, el proyecto se ha extendido a 120 pueblos y ciudades de Euskal Herria. Todos ellos, en un momento dado, han avanzado en el uso: de casa al ambiente grupal primero y, en complicidad grupal, luego al uso de la calle.



Se pueden ver los vídeos creados para la campaña pinchando en los siguientes enlaces:

- o https://www.youtube.com/watch?v=Pwf_TleNvRI
- o <https://www.youtube.com/watch?v=0IS6KaDCIzl>